

# XANISTEBANAK

## OIARTZUN 2023

BIDASOA.HITZA.EUS  
OARSOALDEA.HITZA.EUS

**A**buztuko festak, Oarsoaldean, Oiartzungoak dira. Jada beste herri askotan eginak dituzte udako jaiak, baina Oiartzunen beti patxadaz izaten dira xanistebanen zain: ondoko herrietan beroketa ariketak egiten dituzte oiartzuarrek, eta abuztuaren 2a iristearekin batera, xanistebanei tiraka hasten dira. Gogor. Aurten ere horrela izango da.

Ohikoa den moduan, abuztuaren 2ko arratsaldean hasiko dira Xanisteban Jaiak, eta hil horretako 6ra arte iraungo dute. Jai Batzordeak ahalegina egin du oiartzuarrenatzat usadio diren ekitaldiak mantentzeko, eta aldi berean, ahal diren berri guztiak sartzeko: egitarauaren barrukoak 8otik gora dira orotara.

Datorren asteko asteazkeneko jaien hasierako ekitaldiak izen propioa izango du: Hilario Arbelaitz. Haren senideekin batera Oiartzun munduko mapan kokatu du Zuberoa jatetxearekin, eta ateak itxi dituen honetan, orain xanistebanen munduaz gozatzea tokatzen zaio. Hark ere tira egingo du errespetuzko festen alde. X



Beti errespetuz  
eta txukun...

**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

...gora  
xanistebanak!

*Irunen eta Beran*

*aurkituko gaituzu*

943 63 45 36

[www.goieko.com](http://www.goieko.com)

## XANISTEBANAK

# Su goxoan prestatutako festak

**Datorren asteartean hasiko dira xanistebanak. Jai Batzordean elkartzen diren eragile eta norbanakoek 88 ekitaldirekin osatu dute jai egitaraua. Denetik eta denentzat dago.**

**ERIK GARTZIA EGAÑA**

Gauza asko gertatzen dira urteak dituen 365 egunetan, baina oiartzuarren agendan bost egun gorritz markatuta daude, abuztuaren 2tik 6ra bitartekoak; sagar-dotegietako menua baino mugiezinago-

ak dira festak gustuko dituzten oiartzuarrentzat. Xanistebanak hortxe bertan daude, haien usaina sudurzuloetatik sartzen ari da, eta festa giroaren plater eta mahai-tresnak Iturrioztik —nagusi— Elizalde auzora pasatuko dira.

Herriko festa nagusiak datorren asteazkenean hasiko diren arren, aurretik



hainbat ekitaldi egingo dituzte. Horrela, hilaren 31n, datorren astelehenean, xanistebanetako haurren esku pilota txapelketa herrikoiaren finalak antolatu ditu Oiarpek; 10:30ean hasiko dira, Kontzejupean. Arratsaldean, berriz, musikaren txanda izango da. 19:30ean, Harri Beltzak antolatuta, Alaia Belaunzararen harpa kontzertua izango da Done Eztebe elizan.

Horrez gain, bi erakusketa ere antolatu dituzte. Alde batetik, abuztuaren 1ean, 2an eta 4an, festak iragartzeko lehiaketara aurkeztutako kartelak ikusi ahal izango dira bibliotekan, goizez (09:00etatik 14:00etara). Bestalde, Begoña Mendigutxia zenaren omenezko erakusketa ikus daiteke abuztuaren 10era arte, Arizmendienean. HELTAN bere ikaskide izan zirenek egin zituzten margolanak daude erakusgarri.

**iturri**  
Oiartzungo Merkatarien Elkartea

Dendaria bazara,  
batu zaitez elkartera:  
[iturri@iturri.eus](mailto:iturri@iturri.eus)

[www.esnatu.info](http://www.esnatu.info)  
**ESNATU**  
altzariak eta  
elektrogailuak

Santusene Kalea 5, Oiartzun - 943 49 19 98 - [info@esnatu.info](mailto:info@esnatu.info)

**ALTZIAR**  
EDERGINTZA  
25 urte zuekin!

Santusene kalea, 5. Oiartzun.  
Tel.: 943 49 39 81

*Belutene*  
JANARIDENDA  
*by Oliver*

Tel.: 943 49 05 96  
Arraskularre kalea 20. Oiartzun

**Sasi** lorendenda  
943943494

Martintxo 1, beheka - Altzibar  
20180 OIARTZUN



Pasa den urteko txupinazoko irudia; aurtun ere sokadantzarik ez da faltako Done Eztebe plazan. **OLAIA GERENDIAIN**

Horiek guztiak dira festen aperitibo moduan funtzionatuko dutenak. Plater nagusiak abuztuaren zan aterako dira labetik.

### 88 EKITALDI

Xanistebanetako Jai Batzordean hamarnaka eragile eta norbanakok hartzen dute parte, eta su goxoan prestatu dituzte egitaraua osatuko duten 88 ekitaldiak. Abuztuaren zan musikariek auzoak girotuko dituzte, xanistebanak badatozela iragartzen duten mezularien moduan. Txupinazoaren aurretik, mugimendu feministak agerraldia egingo du, urtero bezala.

20:00etan lehertuko da festa, baina aurretik udalbatzako kideek sokadantza

dantzatzeko dute. Dantza bukatzean, suziria botako du Hilario Arbelaitzek. Oiartzunera Michelin izarrak ekarri zituen sukaldaria aukeratu dute txupina botatzeko arduradun gisa, «bizitza osoko lanagatik», eta Oiartzun sukaldaritzan «erreferente» bilakatu zuelako Zuberora jatetxearekin.

Hortik aurrera, festak ez du etenik izango hurrengo lau egun eta bost gauean. Askotariko ekitaldiz osatutako die-ta izango dute dastatzeko: musika, dantza, danborrada, bazkariak, sagardo eta pintxo dastaketa... Xanistebanek eskaintzen dutena ikusteko, jo [oarsol-dea.hitza.eus](http://oarsol-dea.hitza.eus) webgunera.

«Herriko jaien onena da giro alai eta atseginen momentu ahaztezinak konpartitzen ditugula», nabarmendu du Johana Mendiburu alkateak, oiartzuarrei helarazitako mezuan. Lanean aritu diren

oiartzuarrek zoriondu ditu, emandako emaitzagatik eta izan duten inplikazioagatik. Hori bai, ohartarazi du festak maite den jendearekin partekatzeke «aukera ezin hobea» direla, betiere festen eremua adin guztietako pertsonentzat segurua bada. «Hortaz», jarraitu du alkateak, «jarrera desegokiren bat ikusten baduzu, ez ezazu beste alde batera begiratu. Jazarria den pertsona lagundu eta babesa eskaini behar diogu». Giro «arduratsua» eskatu du alkateak, ingurukoak «errespetatuko» dituen.

Herriarrei dei egin die urtean zeharreko «lan erritmoa, kezka eta estresa» alde batera uzteko, «posible duzuen neurrian». Jaiez ahal bezain beste gozatzeari opa die alkateak oiartzuarrei, eta ahal bezain ekitaldietan parte hartzera animatu ditu.

Beraz, on egin festetan! ✕

**Oiartzungo Estankoa**  
 Tabakoa, loteria eta opariak  
 Tel.: 943 49 16 11  
 Doneztebe plaza, 11  
 OIARTZUN  
*Ongi pasa xanistebanak!*

**Pacheco Izeta**  
 Loredenda  
**Lorez lore, festa eta kolore!**  
[www.pachecoizetaloreak.com](http://www.pachecoizetaloreak.com)  
 943 49 18 68  
 MAMUT merkatalgunea  
 Oiartzun



**Haurtzaro Ikastola**.eus  
 bizitzarako hezkuntza  
 ikastolenikartea

**Ongi pasa Xanistebanetan!**  
 Parte hartu gure ekintzetan eta bisita gaitzazu ikastolako txosnan!

## TXUPINA

# «Xanistebanak lehen aldiz ospatuko ditut. Bizimodu berri honetan gustura egoten da»

**HILARIO ARBELAITZ**

ZUBEROA JATETXEKO SUKALDARI OHIA

**ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN**

2022ko abenduaren 30ean itxi zen euskal sukaldaritzaren tradizionala mundutik ezagun egin duen Zuberoa jatetxea. 52 urtez aritu da han lanean Hilario Arbelaitz eta, aurten, aitortza gisa, xanistebanetako suziria botatzeko ohorea izango du sukaldariak. Bere bi anaiak ere bertan izango direla aurreratu du. «Nire izenean dago, baina nire bi anaiak bertan izango dira. Elkarrekin egon gara

urte hauetan eta sari hau ere beraientzat da, haiei ere puska tokatzen zaie», azaldu du.

Gainera, ez da etxean jasoko duen eskertza bakarra izango. Aste honetan Iturriozko jaiak izaten ari dira, eta festen hasierako lertxunaren altxaera Arbelaitz anaiek eta Arantxa Urretabizkaia Zuberoako langileak egin dute. Horrekin batera Ohorezko Iturrioztar ere izendatu dituzte laurak.

**Herriak aitortza egingo dizu. Nola bizi duzu hori?**

Berrogei eta hamabi urte lanean pasa ondoren oso gustura, lasaitasun handiarekin eta pozik. Orduan, lana eta lana zen dena eta orain, berriz, momentua ailegatu da gozatzeko. Bizimodu berri bat, lasaitasun bat, presiorik gabekoa, hurrengo egunerakoekin bueltarik eman gabe buruan; lehen bueltak eta bueltak ematen baintuen. Lasaitasun guztiarekin eta pozez nago, bizi egin behar da, eta tokatu zaigu [txupina botatzea] tokatu behar zitzaigun momentuan.

**Aspaldiko partez xanistebanez lehen egunetik azkeneraino gozatzeko aukera izango duzu. Gogoz?**

Lehenengo aldiz disfrutatuko dut xanistebanez, bai. Berez, aurten, dena ari da izaten lehenengo aldiz. Abenduaren 30ean itxi genuen eta, segituan, San Sebastian Egunaren bezperan Gaztelubide elkartean eman ziguten kupela berezia. Eta, gero, hurrengo egunean, egun guztia pasa genuen Donostian lehenengo aldiz.

Aurten, sanferminetan Lesakara joan gara, eta hura ere lehen aldia izan da. Gauza asko egiten ari gara lehenengoz. Xanistebanak ere, beraz, estreinako ospatuko ditut. Bizimodu berri honetan gustura egoten da, pozik nago.

**Nola jaso zenuen txupina botatzeko proposamena?**

Eskertu nahi nituzke Oiartzungo Udala, eta batez ere, Xanistebanetako Jai Bartzordea aukera eman digutelako suziria botatzeko. Hiru anaiak joango gara, hurrak egon garelako bizi guztian hemen lanean, eta elkarrekin joango gara, eta elkarrekin botako dugu: ohorea da guretzat.

*Txintxosta*  
ileapaindegia  
@txintxosta\_oartzun  
ongi pasa!  
Tel.: 943 26 05 13  
Manuel Lekuona Hiribidea, 8. OIARTZUN

**GURUTZE BERRI**  
HOTELA - JATETXEA  
Gurutze-Berri Etxea  
Bizardia Plaza, 7 - 20180 OIARTZUN  
Tel.: 943 49 06 25  
gurutze@gurutzeberri.com

**Oiartzo** IKASTOLA  
etorkizunerako bidelagun  
**Gora Xanistebanak!  
Eta biba zuek,  
gazteak!**  
www.oiartzoikastola.es

Oso pozik gaude jatatzea itxi ondoren dei asko izan ditudalako zoriontzeko, eskertzeko, eta sariak emateko. Hau etxekoa da, eta etxeko saria askotan izaten da zailena. Lana bukatu ondoren etxekoak gutaz oroitzea, eta gu izatea txupina botako dugunak pozez, ohorez eta harro gaitu.

### **Xanistebanak egun bereziak izaten dira. Kozinatzeko asmorik duzu?**

Lanarekin bukatu nuenean promesa bat egin nuen. Urte asko pasa ditut jende askorentzat kozinatzen, eta gutxien egin dudana familian izan da. Bukatu nuen momentutik buruan daukat ez dudala inorentzat kozinatuko. Eskaintza asko jaso ditut, adibidez, Basque Culinary Centerren, bertako patroia ere bainaiz. Beste eskoletako zuzendariak ere deitu didate ea klaserik emateko prest nagoen. Eta ezetz esan diet, promesa egina daukadala, urte asko pasa ditudala sukaldetan, eta ez naiz besteentzako kozinatzerantz itzuliko. Esandako hitza bete behar da.

### **Familiarekin sukaldetan bai, beraz. Xanistebanetan plater kutunen bat kozinatuko diezu?**

Normalean eguneroko jana izaten dugu etxean. Azken finean, pertsonarentzat uste dut askoz hobea dela. Gu lanean ari ginenean gure eguneroko bazkaria eta afaria etxe batean egiten dena bezalakoa zen. Zuberoan kozinatzen genuen jakiekin ez da posible eguneroko jatea.

Orain, xanistebanak direla eta, bai, beti zerbait berezia, kutixiren bat izaten da. Etxean bai kozinatuko dudala Zuberoan egiten nituen gauzak, etxean ere probatzeko. ✕



A. Aranburu

**Mila esker kabi txiki honetan bidea egiten lagundu gaituzuen guztioi.**

**Errazioak**  
Ogitartekoak  
Entsaladak  
Plater konbinatuak  
Sandwichak  
Hanburgesak  
...

**943 · 494256**  
Euskal Herria plaza  
[www.kabitxotaberna.com](http://www.kabitxotaberna.com)

## Matteo

### JATETXEA

[www.amoralpuchero.com](http://www.amoralpuchero.com)  
☎ 943 49 11 94  
☎ 667 713 584

**Egunero irekita.**  
**Bazkariak 13:00etatik aurrera.**  
**Taberna 11:00etan irekitzen dugu.**

lurrita bidea, 2 behea.  
Ugaldetxo.  
20180 Oiartzun  
Tel.: 943 49 11 94  
[info@amoralpuchero.com](mailto:info@amoralpuchero.com)

# Aiton-Etxe

## EGUNEKO ZENTROA

DIPUTAZIOAREKIN HITZARTUTA  
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

**943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - [www.aitonetxe.com](http://www.aitonetxe.com)**

# TXIRRINDULARITZA



## 75 urte pedalei eragiten Oiartzunen

**Abuztuaren 6an 23 urtez azpiko eta Elite Mailako txirrindularien Xanisteban Saria Txomin Perurenaren Oroimenezkoa lasterketa lehiatuko da, 10:00etatik aurrera. 75. ekitaldia izango da aurtengoa, eta berritasunekin dator.**

Javier Gil txirrindulariak irabazi zuen Xanistebanetako Sariaren 2018ko ekitaldia. Erik Gartzia

**MIKEL DEL VAL**

**GARMENDIA ITURTXOKO S.L.**  
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA  
ELORRONDO 1, BEHEA - OIARTZUN  
943 49 44 36 - 639 37 39 98  
[WWW.GARMENDIAITURTXOKO.COM](http://WWW.GARMENDIAITURTXOKO.COM) giturtxoko@gmail.com

Abuztuaren 6an, xanistebanen barruan, Oiartzunen mitikoa bihurtu den txirrindularitza lasterketa lehiatuko da. Xanisteban Saria lasterketaren 75. ekitaldia izango da aurtengoa, bide luzea egin duen seinale. Sona handia du udako lasterketen egutegian, eta aurten, berritasunekin dator.

**ZUBILLAGA**  
**aholkularitza - gestoria**

- FISKALA
- LANA
- KONTABILITATEA
- ZIRKULAZIOA
- ESKRITURAK, HERENTZIAK
- ASEGUROAK

Aialde Kalea 3, behea - 20180 Oiartzun  
943 49 18 92 - asesoria@asesoriazubillaga.eus

Lehen aldaketa nabarmena antolakuntzan eman da. Orain arte Lartaun Zikloturista Elkarteak kudeatutako lasterketa Oarsoaldeko Txirrindularitza Elkarteak (OTXE) antolatuko du aurten lehenengoz. Mikel Astarloza OTXEko kide da, eta lasterketa beregain hartzearen arrazoiak plazaratu ditu: «Lartaun

Bertako ekoizle txikiek ekoiztako elikagai osasuntsuak prezio justuan

**Labore**

Xanixtebanetan ere zaindu maite duzun hori!!

Ihurrita bidea, 14. OIARTZUN.  
Tel.: 943 47 74 01 / 676 01 98 44

**Egurrezko Labean Egindako Janariak**

Rafael Pikabea 50, Oiartzun  
Tel.: 943 49 25 85 / 640 08 08 72

Zikloturista Elkarteko kideek hots egin ziguten esanez urte asko zeramatatzela lasterketa antolatzen eta nekatuak zeudela, errelebo bila zebiltzala. OTXE aukerarik egokiena zela iruditu zitzairen, eta haien lekukoa hartzea erabaki dugu. Lasterketak 75 urte beteko ditu aurten, pentsa zer-nolako historia duen. Horrenbesteko historia duen lasterketa bat ezin da galtzen utzi, bultzadatxo bat eman behar zaio».

Lasterketan aldaketak sartu badituzte ere, Lartaunek hasitako bideari jarraipena eman dio OTXEK, eta orain arte egin duten lana goraiatu du Astarlozak: «Oso erraz utzi digute dena. Txosten guztiak eman dizkigute beraien lan ildoak ondo azalduta, eta hain ondo egin duten horri jarraipena ematen saiatu gara».

Bigarren berritasuna izen aldaketa izan da, eta Xanisteban Saria Txomin Perurenaren Oroimenezkoa izena jasoko du lasterketak hemendik aurrera. Txomin Perurena Oiartzunen jaiotako txirrindularia izan zen, eta aurtengo ekainean zendu da. Txirrindularitza profesionalean ibilbide loriatsua osatu zuen, eta bere figura errekonozitu nahi izan du OTXEK probaren izen aldaketarekin: «Zoritxarrez aurten zendu da Txomin Perurena. Oiartzunek eta Euskal Herriak izan duten txirrindulari handiena izan dela esango nuke. 158 garaipen lortu zituen profesional gisa eta oso maitatua izan zen bai herrian, baita Euskal Herrian ere. Zalantzarik ez genuen izan Txomin omentzeko, hark beti esaten zuen oiartzuar peto-petoa zela. Uste dut Txomin Perurenaren Oroimenezkoa

izena hartzea dagokiola Oiartzungo lasterketari». Izena eskaintzeaz gain, probaren sari banaketan Perurena omenduko dutela baietsi du Astarlozak.

Azkenik, ibilbidean aldaketak sartu dituzte, eta txirrindulariek osatu behariko duten bidea «gogorragoa» izango dela aurreratu du Astarlozak. Lasterketa 10:00etan irtengo da, 150 txirrindulari ingururekin. Lasterkariak 113 kilometro ibilbide gogorrari egin beharko diote aurre, eta zazpi itzuliko zirkuitu bat osatu beharko dute.

### AZKEN HIRU ITZULIAK, «GOGORRAK»

Zirkuituko lehen lau itzuliak «gorabeheratsuak» badira ere, Astarlozak aitortu du ez direla «bereziki gogorak». Lasterketaren lehen lau itzuli horietan Perurenatik igo, Zamalbidetik jaitsi, eta Oiartzungo saihebidetik Fortalezako bidea egingo dute.

Azken hiru itzuliak, ordea, «gogorra-koak» dira aurten sartu duten berritasunagatik: Trekuko bidea. «Gurutzera ateratzen den Trekuko maldak oso gogorra den kilometro bat du, eta azken hiru itzulietan igoera hori sartzearen arrazoia da lasterketa txikitzea», esan du Astarlozak ibilbide aldaketaren gainean. Las-

terketa txikitzean, txirrindulariak Done Eztebe plazako helmugara «talde txiki batean edo banaka» iritsiko direla iragarri du OTXEko kideak.

Oiartzunen lehiatuko den pelotoiak hogeitai talde eta 150 txirrindulari inguru izango dituela aurreratu du Astarlozak, eta parte hartzaileak 23 urtez azpikoak eta Elite Mailakoak dira. «Euskal Herriko ziklista onenak» espero dituztela zehaztu du OTXEko kideak, baina Frantziatik eta Espainiatik ere taldeak etorriko direla gaineratu du. Oiartzunen «profesionalak jautzia emateko esperantzak» dituzten txirrindulariak lehiatzen direla esan du Astarlozak, eta antolakuntzako kideak argi du zein den haien egitekoa: «Gure lana izango da lasterketa ahalik eta ondoen antolatzea, beraien egiten duten hori ondo eta gustura egin dezaten».

Lasterketa errealitatea bada ere, berai antolatzeko babesleen laguntza «ezinbestekoa» dela esan du Astarlozak, eta eskerrak eman dizkie egiten duten «esfortzuagatik». Antolakuntzako lantalde nagusian sei pertsona badaude ere, 100 boluntario inguru izango dituzte lasterketaren egunean. Horien lana ere bideratu nahi du OTXEko kideak. ✕

**Beerlagun**  **GORA XANISTEBANAK!**

[www.oarsoak.com](http://www.oarsoak.com)

UGALDETXXO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN  
TEL. 943 49 01 62. [oarsoak@oarsoak.com](mailto:oarsoak@oarsoak.com)

**Mirari Txurio**  
**ILEAPAINDEGIA**  
**Ongi pasa xanistebanak!**  
**Tel.: 943 49 20 52**  
Rafael Pikabea, 27  
20180 OIARTZUN

  
**Ase arte, ongi pasa xanistebanak!**  
**TOLAITA**  
**OSTAUA**  
Rafael Pikabea Hiribidea, 9.  
OIARTZUN  
Tel: 943 01 47 02



Oidultzeko dultzaineroak Oiartzunen egindako emanaldi batean. OIDULTZ

## Dultzaina doinuak nonahi belarriak goxatzeko

Oidultz elkarteko dultzaineroak xanistebanetan bazterrak girotzen ibiliko dira. Erronka bat dute, gazteak taldera erakartzea. Herritik kanpo ere arituko dira, Pasai Donibanen eta Goizuetan tarteko.

### IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Dultzaina doinuek ez dute hutsik egingo xanistebanetan. Altzibar eta Iturriotzen izango dira Oidultz elkarteko kideak abuztuaren 2an, eta 4an, berriz, plaza girotuko dute. Garrantzia eman dio elkarteko lehendakari Lorena Zalakain Lopezek 2an Aiton Etxen egingo duten emanaldiari: «Geldialdia egiten dugu bertan, beraien gustuko abestiak jotzeko». 2017an sortua, 23 bazkide ditu Oidultzek, Soinueneko ikasleak izandako-

ak denak, eta anitza da taldea adinari erreparatuta: «Gazteenek 8 eta 16 urte artean dituzte, eta helduenak 70. Oiar-tzuarrak, errenteriarrak, donostiarrak eta lezoar bat ere badago tartean».

Ez dutela gazteak taldera erakartzea lortzen dio, eta erronka bihurtu zaie hori: «Hernanin eta Tolosan gazte talde politik osatu dituzte, Oiartzunen, berriz, gazteak falta zaizkigu. Izena ematen duten denak adinekoak dira. Orain-txe bertan taldean ditugun bi gazteenak danbor jotzaileak dira, eta ni naiz dultzaina jotzaile gazteena, 45 urterekin».

Dultzainak zer duen berezia galdetuta, musika tresna «erosoa» dela esan du Zalakainek: «Bolumena du, eta beraz, erraz entzuten da; horrek ere badu bere pega, batzuetan altuegia da bolumena. Eskusoinua ere jotzen dut, baina hori ezin dut mendira eraman. Dultzaina bai, motxilan sartuta».

### Konstantzia, beharrezkoa

Jotzen zaila den galdetuta ezetz dio oiar-tzuarrak. «Konstantzia behar da, hori bai. Aste batetik bestera ez badut jotzen, muturrak txikitzen ditut jotzerakoan berriz ere, eta ezin dut lau kantu baino gehiagorekin. Jarraipena eskatzen du, maiz jo beharra, baina zaila ez da».

Herritik ere ateratzen dira dultzaina doinu ederrak batera eta bestera eramateko: «Lezoko mendekoste eta santakrutzetan joatzen dugu diana, igandean Pasai Donibanera joango gara, eta abuztuaren 12an, berriz, Goizuetako jaietara. Horiek hitzordu finkoak dira jada». Urrutiena, berriz, Torroella del Montgri (Girona, Katalunia) heldu dira: «Guardian (Araba) egiten den dultzainero to-paketan parte hartzen dugu, eta han ezagutu genuen herri horretako talde bat. Ihoteetan Oiartzunen izan ziren, eta iaz, gu izan ginen euren herrian. Zoragarria izan zen esperientzia, gure oso estilokoak direlako, talde herrikoia». Sinistuta dago herrian bere lekua hartu duela dultzainak, «auzo guztietako festetan jotzen dugu eta kontuan hartzen gaituzte».

Elkartek ateak parez pare zabalik dituela esan du lehendakariak, «dultzaina jo nahi duen ororentzat». X







# IPARBUS

943 49 18 01  
www.iparbus.com

Ongi pasa  
Xanisteban  
jaiak!



**URKIA**  
www.urkia.com



**GİRIZIA**  
KULTUR ETA KIROL ELKARTEA

GOZATU EUSKARAZ ETA GIRO  
ONEAN HERRIKO FESTAK



**GORA XANISTEBANAK!**  
**GORA OIARTZUN!**



*Oiartzun*  
**FORTALEZA 1786**

*Ongi pasa xanistebanak!*

**FORTALEZA1786.COM**

Ergoingo bidea 15. Oiartzun - Tel.: 943 71 37 70



# PROPOSAMENAK



Ane Mendizabal

## BAZKARI BEGANO-FEMINISTA

**Abuztuak 4, 14:30ean, Zimitiyoan.** Oiartzungo Feministen Asanbladak deituta, aurten ere bazkari feminista egingo dute festetako hirugarren egunean. Menua beganoa izango da. Bazkaldu ondoren, Beatriz Egiazabalek *Magma Mia* bakarrizketa eskainiko du.



**EGITARAU  
OSOA  
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda



*Ongi pasa xanistebanetan!*

**MAPFRE**  
OIARTZUN

ITZIAR USABIAGA ARANA  
Tel.: 943494414  
iusabia@mediador.mapfre.com  
Mendiburu, 4 beheha OIARTZUN

ARTE  
DAN  
DAMA

*Mitxelena*

bitxidenda

Mamut merkatalgunea - Oiartzun - 943 49 31 84

*Ongi pasa xanistebanak!*

HARATEGIA

**LIZAR**

URDAITEGIA

*Ongi pasa Xanistebanak!*

Elorrondo 18 - Oiartzun - 943 49 19 72



**DUPLA**

HITZA

**Abuztuak 2, 00:00etan, txosnagunean.** Duplak dantzarako gaua eskainiko du lehenengo egunean. Gauerditik aurrera, gorputzak mugiaraziko ditu Aguraingo taldeak. Ez da kontzertu bakarria izango, beste hiru gautan antolatutako baitituzte toki berean (azkenekoan ez).

**elizalde**

HERRI ESKOLAK  
XANIXTEBAN  
ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE!



**EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA**

www.elizalde.eus

Manuel Lekuona, 5 - Oiartzun

HH-LH: 943 49 01 93 - DBH: 943 89 92 83



## SOKATIRA TXAPELKETA

Ane Mendizabal



## BARRAKAK

Erik Gartzia



## KANTU-KANTARI

Olaia Gerendiain

**Abuztuak 5, 12:30ean, herriko kaleetan zehar.** Euskal kantuak abesteko juntadizoa antolatu dute, beste urte batez, Lartaun abesbatzakoek, Kantu-Kantari izenarekin. Kantuzale diren guztiak animatu dituzte herriko kaleak girotzera, eguerdia pasatxo denean.

**MARITXU**  
arrandegia

Ongi pasa  
xanistebanak!

Donibane kalea 8 - Oiartzun - 943 49 06 43



## KIRIKOKETA

gozau  
dakizun  
bezala!

Aialde, 1  
Oiartzun  
943 26 07 78

sagardotegia  
**BALEIO**  
sagardo naturala

Urte osoan zehar sagardo botilten salmenta

943 49 13 40 - 626 69 30 74  
OIARTZUN

periodontzia  
inplantologia  
kirurgia  
protesia  
ortodontzia  
ortopantografia

maitane zubizarreta  
**arkupe**  
hortz klinika

Kontzejupe plaza, 7 • 20180 Oiartzun • 943 57 39 23

# ARRETA eta INFORMAZIO ZERBITZUA ERASO MATXISTEN AURREAN



## EGUNEKO ZERBITZUA

Abuztuak 4 - 5 - 6  
14:00-18:00



## GAUEKO ZERBITZUA

Abuztuak 2tik 6ra  
23:00-06:00



## LEKUA

Mendiburu kalea 5 (txokolategi parean)

INDARKERIA MATXISTARIK  
GABEKO XANISTEBANAK



OIARTZUNGO  
UDALA

Abuztuaren 2tik 6ra

# XANISTEBANETAKO GAUEKO XORROLA BEREZIA



Irteerak (Elizaldetik): 00:00 - 01:00 - 02:00 - 03:00 - 04:00 - 05:00 - 06:00

ELIZALDE Biblioteka ondoko geltokia GURUTZE Bizardia plazako autobus geltokia ERGOIEN Tornola kaleko autobus geltokia ALTZIBAR Zokoloko zubia  
KARRIKA Plazako autobus geltokia ITURRIOTZ Beko soro pareko autobus geltokia IBARRE Gasoldegiko geltokia ELIZALDE Pikabeneko geltokia  
UGALDETXXO Intxiru pareko autobus geltokia ARRAGUA Lartzabal etxadiko geltokia MENDIN Frontoi gaineko geltokia